

Irudiak Bideoak Paperekoak Harpidetza Zorion Agurrak Txokoa Eskelak Zerbitzuak Hitza baino +

•BUSTURIALDEKO• HITZA

GAIAK IRITZIA HERRIAK MULTIMEDIA PAPEREOA AGENDA TXOKOA

Nork Ane Maruri Aransolo -Uzt 26, 2018


KROAZIARA, GIZA ESKUBIDEAK ETA MEMORIA HISTORIKOA LANTZEKO ASMOZ

f Facebook Print Twitter WhatsApp Email Telegram

Giza eskubideak eta memoria historikoa lantzeko udaleku bat antolatu du Kroazian Europar Batasuneko Erasmus+ programak. Bertan izango dira **Gernika Gogoratuz elkarteak aukeratutako bost gazte**; horien artean, bermeotar bi, gernikar bi eta salamankako bat.

Elkarteak aukeratutako bost gazteak eta beraien taldeko arduraduna **“Venues of Victims / Venues of Perpetrators” proiektua** lantzerantz doaz Kroaziara, Europako beste hamabi herrialdeetako kideekin batera.

Kroaziako narratibatik abiatuta Europako narratibaren heterogenetasunerako salto egin nahi du programak; “historia egungo gazteentzako erakargarri bihurtzeko”. Hori guztia, jardueraren bidez landuko dute, “beste begi batzuekin aztertzen ikastea eta balio europarrak praktikatzeko bidea” bultzatu nahi dute eta.



Kroaziako proiektua prestatzeko egindako bilera, Weimaren (Alemania).

Jugoslavia zaharreko gatazkak bizi izandako herrialdean zehar ibiliko dira eskualdeko bost gazteak abuztuaren 18tik 31ra bitartean. Besteren artean, Zagreb, Jasenovac, Pula, Vukovar eta Opatija bisitatuko dituzte. Herri eta hiri horietan, **gatazka desberdinen leku** izan ziren tokiak bisitatuko dituzte, bai eta gerra bizi zutenen **testigantzak** jaso ere.

Hausnartzeko bidaia. Iraganak Kroazian utzitako leinua giza eskubideen eta memoria historikoaren ikuspegitik aztertzeko aukera izango dute. Gainera, Kroazian ikusi eta ikasitakoa aplikatuz, hausnartzeko espazioak sortzeko aukera izango dute, eskualdera bueltatzen direnean hausnarketekin jarraitzeko.

f Facebook Print Twitter WhatsApp Email Telegram

ANE MARURI ARANSOLO